

Luis Liz-Marzán irakaslea, Anberesko Unibertsitateko *honoris causa* doktorea

Anberesko Unibertsitateak Zientzietako *honoris causa* doktore izendatuko du CIC biomaGUNEko Ikerbasque irakasle eta Vigoko Unibertsitateko katedradun Luis Liz Marzán, nanopartikula metaliko plasmonikoen sintesi, karakterizazio eta aplikazioan duen esperientzia aitortzeko. Inbestidura-ekitaldia 2023ko martxoaren 30ean egingo da, irakasleak berak emandako eskola magistral baten ondoren. Liz Marzánen hautagaitza Anberesko Unibertsitateko Sara Bals katedradunak aurkeztu zuen.

Liz Marzán irakaslearen ustez, “izendapen honek balio berezia du”, hainbat arrazoiengatik. Alde batetik, “adierazten du erakunde oso batek aitortza egiten diola harreman zientifiko estu, luze eta emankor bati”, dio Liz Marzánek, Anberesko Unibertsitateko kideekin 10 urtez baino gehiagoz izan duten lankidetzaz zientifikoa aipatuz.

CIC biomaGUNEko [Bionanoplasmonika](#) taldeko ikertzaile nagusiak —Bioingeniaritzako, Biomaterialetako eta Nanomedikuntzako Sareko Ikerketa Biomedikoaren Zentroko ([CIBER-BBN](#)) ikertzaile nagusia ere bada— Anberesko Unibertsitatearekin duen harremana “duela 10 urte baino gehixeago sortu zen, Europako ESMI (European Soft Matter Infrastructure) partzuergoan Gustaaf Van Tendeloo eta Sara Bals irakasleekin bat egin nuenean; aurrerago ere elkartu ginen, haren jarraipenean ([EUSMI](#)). Bals irakasleak ERC Starting Grant bat eta ERC Consolidator Grant bat jaso ditu jarraian, biak mikroskopia elektronikoaren eta, zehatzago, tomografia elektronikoaren arloan. “Teknika horri esker, nanomaterialen 3D irudiak lor daitezke, eta funtsezkoa izan da bai biomaGUNE IKZn bai Vigoko Unibertsitatean sintetizatzen ditugun material asko karakterizatzeko”. 10 urte hauetan, Liz Marzán eta Bals irakasleek 60 lan baino gehiago argitaratu dituzte elkarrekin alorreko aldizkaririk onenetan (*Science*, *Nature Materials*, *Proceedings of the National Academy of Sciences of USA*, *Nature Communications*, *Journal of the American Chemical Society*, *ACS Nano*, *Nano Letters*, *Advanced Materials* eta abar). “Gaur egun ere lankidetzaz ugari ditugu martxan, eta, jakina, oso harreman pertsonal ona dugu”.

Bestalde, Anberesko Unibertsitateak zientzietan *honoris causa* izendatu izan dituen pertsonen artean Nobel saridunak daude, hala nola Andre Geim (grafenoaren aurkitzaileetako bat), Robert Ernst (erresonantzia magnetiko nuklearraren erabilera bultzatu zuena) edo David Attenborough naturalista ezaguna. “Hau da nik alor honetan jaso dudan lehen aitortza, eta, beraz, esanahi bereziagoa du”.